

**4/2020 EBAZPENA, MARTXOAREN 16KOA, BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARENA, COVID-19 DELA-ETA, MANKOMUNITATEKO LANGILEEI TELELANERAKO AUKERA EMATEN DIENA.**

COVID-19 koronabirusaren bilakaerak eragindako egoeraren eraginez eta kontuan hartuta Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak martxoaren 12an emandako 14/2020 Foru Agindua, baimena ematen duena COVID-19 dela-eta neurri batzuk hartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen menpeko lantokietan, eta bereziki artikulu hauetan oinarrituta:

“5. Bilerak. Ahal dela, ez da lan bilerarik egingen, eta bertan behera geldituko dira beste herri batera joatea dakarten guztiak. Era berean, bideokonferentzia erabiltzearen alde lan egingen da.

9. Aurrez aurrekoak ez diren lan modalitateak. Behar bezala justifikatutako kasuetan, baimena emanen da aurrez aurrekoak ez diren lan modalitateetarako, zuzendaritza nagusiko titularrak edo kasuan kasuko langileen atxikipen esparru organikoko titularrak baimena eman ondoren.”

Horiek guztiak kontuan hartuta, EBATZI DUT:

- 1) Mankomunitateko langileei telelanerako aukera ematea, betiere egin beharreko lanak horretara ahalbidetzen duen bitartean.
- 2) Etxetik lan egiteko egin behar diren egokitzapen material eta informatikoak egiteko aukera ematea.
- 3) Mankomunitateak eta bertako langileek aurreikusitako zituzten bilera guztiak bertan behera uztea.


**Eta behar den lekuan hala ager dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, hauxe sinatu dut, Arantzan, bi mila eta hogeiko martxoaren hamaseian.**

LEHENDAKARIAK



Leire Mitxelena Gamio

ZIURTATZEN DU,  
IDAZKARIAK



Mª José Larraiotz Ariztegi